

# Telebista, etorkizunik gabeko asmakizun hura

HELENSBURGH (ESKOZIA), 1888. John Logie Baird ingeniari, fisikari eta asmatzailea jaio zen. Besteak beste, munduko lehen telebista mekanikoa, publikoki frogatutako koloretako lehen telebista sistema eta koloretako lehen telebista-hodi erabat elektronikoa hark asmatu zituen. Horrek guztiak, telebistaren eta oro har zientziaren historian toki nabarmena ekarriko zion gerora; 2002an BBCren “100 britainiar handienak” zerrendako 44. postuan ipini zuten eta 2006an Eskoziako hamar zientzialari garrantzitsuenen zerrendan sartu zuten. Baina hastapenak ez ziren errazak izan asmatzailearentzat.

1925eko urriaren 2an, Bairdek lehen telebista irudia igorri zuen arrakastaz: bentrilokuo baten panpinaren irudia zen, bertikalki eskaneatutako 30 lerroz osatuta zegoen eta segundoko bost irudi igortzen zituen. Publizitate bila, Bairdek *Daily Express* egunkarira jo zuen asmakizuna sustatzera. Egunkariko albisteen editoreak zera esan zuen, haren lankide batek jasotakoaren arabera: “Jainkoarren! Zoaz harrera gunera eta libratu zaitez han dagoen zoroaz. Irrati bidez ikusteko makina bat duela dio. Kontuz ibili, baliteke labana bat eramatea”.

Egunkariko erredakzioan ez beste leku askotan erakutsi zuen Bairdek ero ez zegoela eta makina hark funtzionatzen zuela. Eta, hala ere, zenbait ez zion tramankuluari erabilera komertzialik aurreikusi. Lee Dee Forest (1873-1961) AEBetako asmatzaileak honakoa esan zuen: “Ezin dugu denbora galdu asmakizun horrekin ametsetan”.



JENNIFER WILDER

1936an, *Radio Times* astekariko editore baten esanetan: “Telebistak ez du inolako garrantzirik izango zuen bizitzan, ezta nirean ere”. Handik urte batzuetara, ordura arte soilik irratia hizpide zuen astekarian telebistari buruzko edukiak nagusituko ziren.

1946an hil zen John Logie Baird. Ordurako inork gutxi jartzen zuen zalantzan telebistaren etorkizuna. Darryl F. Zanuck zine ekoizlea zen salbuespenetako bat, besteak beste, *How Green Was My Valley*, *All About Eve* edo *The Longest Day* klasikoak ekoiztu zituen. Urte horretan bertan egin zituen Zanuckek adierazpen hauek: “Jendea berehala aspertuko da gauero egur kontraxaflatuzko kaxa bati begira egoteaz”.

Eta ezin esango dugu erabat oker zegoenik, egun jendea bestelako materialez egindako telebista lauei begira egoten baita gauero. ■

## Arrastoak

### Txakur egosia Atapuercako gizakien dietan



DUELA 7.200 eta 3.100 urte artean Atapuercako (Burgos, Espainia) El Mirador kobazuloan bizi ziren gizakiek txakur etxekotuak, basakatuak, azkonarrak eta azeriak jaten zituzten, Giza Paleoekologiako eta Eboluzio Sozialeko Institutu Katalanak berriki jakinarazi duenez. 24 arrasto fosil-gehienak txakurrenak; horien artean

argazkian ageri dena—, aztertu ondoren, animaliak jan aurretik egosten zituztela ondorioztatu dute ikerlariek. Mendebaldeko Europan espezie horiek elikatzeke erabiltzea ez zen batere ohikoa eta, horregatik, baliteke urritasun garaian hartutako neurrien ondorioa izatea, oraingoz hipotesia besterik ez den arren. ■